



2009KO ZILARREZKO GEHITU SARIA

Eusko Jaurlaritzak 2006an Erabilera Publikokoa zela adierazi zuen eta Merezimendu Domina jasoa duen Gehitu (Euskal Herriko lesbiana, gay, transexual eta bisexualen Elkartea) Elkarteak aho batez erabaki du 2009ko Zilarrezko Gehitu saria honakoari ematea:

NAFARROA BAI koalizioari.

Nafarroako Foru Parlamentuan pertsona transexualak erabat onartzeko lege integralaren proposamena aurkeztu zuelako.

Nafarroa Bai koalizioak beti kontuan izan ditu pertsona transexualak, gizartearentzat ikusezinak direla onartu du, funtsezkoak diren horien eskubideak diskriminazio-egoeran daudela ikusi du, laneratzeko zailtasunak dituztela egiaztatu du...

Estatuan aitzindaria den lege hori, alde batetik, funtsezko tresna bat da pertsona transexualen eskubideen alorrean, lege-berdintasunean eta gizarte alorrean aurrera egiteko, baina bestetik, informaziorako eta gizarte heziketarako tresna baliagarria dela ikusi da pertsona transexualak bizi duten egoera agerian jarri duelako.

Lege osatu horrek pertsona transexualen osasunarekin eta osasun zerbitzua erabiltzeko duten eskubidearekin zerikusia duten gaiak jasotzen ditu, hezkuntzarekin zerikusia duten gaiak ere jasotzen ditu pertsona transexualek jasan behar izaten dituzten ezjakintasun edo diskriminazio-egoerak erro-errotik saihesteko, diskriminazio positiboko neurriak ezartzen ditu horiek lan-merkatuan sartu ahal izateko eta transexualen kolektiboan ematen diren langabezia indize altuei eta azpienpleguari amaiera emateko.

Gehitukoek begi onez ikusten dugu ekimen politiko hori eta Legebiltzarrean izapidetzerakoan bere osotasunean jasotzeaz gain legebiltzarkideen babesa izatea ere nahiko genuke hori onartzeko eta bere osotasunean ezartzeko, pentsatzen dugu Legebiltzarreko gainerako taldeek ere azalduko dutela pertsona transexualekiko duten elkertasuna eta laguntza, lege horren aldeko botoa emanaz.

Lege-ekimen hori, bere garaian Nafarroako izatezko bikoteen legea izan zen bezalaxe erreferente izatera helduko da eta autonomietako gainerako Legebiltzarkideek jarraitu egingo dute transexualen kolektiboaren eskubideak onartzeko eta babesteko.